

# Sagardoetxeak 15 urte!

Pausoz pauso eta etenik gabe, Sagardoetxea sagardoaren kulturari eusteko eta euskal kultura sustatzeko lanetan aritu da 2006ko irailean bere ateak ireki zituenetik. Publiko ezberdinetara bideraturiko bisita gidatuak, esperientzia turistikoak, tailerrak, ekitaldiak, urtaro bakoitzerako jarduerak eta aldi baterako erakusketak izan dira, besteak beste, Sagardoetxeak azken urte hauetan eskainitakoak. 2021ean ere, eskaintza berezia egin die herritar nahiz bisitari guzteei bere 15. urteurrena ospatzeko antolaturiko jardueren aukera zabalarekin.



## Etenik gabeko ibilbidea

Sagardun Partzuergoaren ekimenez, **2006an ireki zituen bere ateak Sagardoetxeak**. Astigarragako herriak, ordea, betidanik zaindu eta zabaldu izan du sagarraren eta sagardogintzaren inguruko kultura, sagardogile, talde kultural eta herriko jendearen bitartez: Astigar Elkarteak antolatuta, 1976an Euskal Herriko Lehenengo Sagardo Eguna ospatu zen Astigarragan (gaur egun Euskal Herri osoan ospatzen diren sagardo egun guztien aitzindaria dena) eta 1984an “Sagardoaren museoa” Astigarragan eratzeko proposamena egin zion Donostiako Udalari, museoa sortzeko ideia urtebete lehenago antolatutako sagardoari buruzko jardunaldien ospakizunaren ostean sortu eta gero. Urte hartatik aurrera, sagardoari eskainitako museo bat sortzeko ideiarekin inguruan izandako ekimen eta proposamen ezberdinen ostean, 2003ko ekainean, Astigarragako Udalak, herriko kultur taldeek eta Astigarraga eta inguruko sagardotegiek Sagardun Partzuergoa eratu zuten eta Partzuergoaren lehendabiziko helburuetako bat izan zen gaur egun Sagardoetxea gisa ezagutzen dugun museoa sortzea, sagarraren nahiz sagardoaren kulturari eta euskal kulturari eusteko eta hori zabaltzeko museoa.



## 15 urtetako ibilbidearen ostean, ekintza eta jarduera ugari egin eta hainbat emaitza lortu ditu Sagardoetxeak:

- **Urtean 12.000 bisitari** inguru jasotzea ahalbidetzen duten **bisita gidatuak**.

- **Hezkuntza arloari lotutako bisitak:** Astigarragako Herri Eskolarekin urtean 2-3 aldiz bisitan etortzeko hitzarmena dauka eta honetaz gain, ikastola, aisialdi talde nahiz euskaltegienezako bisita bereziak egiten ditu.

- **Aldi baterako erakusketak:** "Sagardogintza gure baserrietan", "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" eta "Emakume ekintzaileak sagardogintzan" erakusketak antolatu eta hainbat herritan ikusgai jarri ditu.

- **Urtean zeharreko ekintzak:** Udaberri giroan, Museoen Nazioarteko Eguna, Aste Santuko sagardoa eta Euskal Herriko gazta ezberdinen dastaketa berezia, Udazken zapoz sagar muztioaren elaborazio tailerra familientzat, eta antzeko ekintzak antolatzen ditu herritarrentzat.



- **Esperientzia turistikoak:** "Sagardoa eta Itsasoa" esperientzia Donostian Aquariumarekin eta Pasaian Albaoiarekin, "Sagardoa eta gazta" esperientzia Idiazabal nahiz Urnietako gaztandegi, Idiazabalgaztaren museoa nahiz Ordiziako D'Elikatuz Zentroarekin, "Sagarbike" esperientzia Donostiako Go Local enpresarekin, "Sagartrekking" Santiagomendiko Sagardo Bidean zehar, "Chillida eta sagardoaren kultura" esperientzia Chillida leku museoarekin edo "Astigarraga ezagutzuz" esperientziak martxan jarri ditu herriko taberna nahiz eragile ezberdinekin.

- **Ekitaldiak:** Sagardo Berriaren Eguna, Santa Ana, Sagar Uzta eta Sagardo Forum-a antolatzen ditu herritarren artean sagardoaren kultura sustatzeko.

- **Argitalpenak:** sagarraren nahiz sagardoaren kulturako euskarazko 500 hitz biltzen dituen "Sagardoaren Hiztegia" argitaratu du eta urtero sagarraren eta sagardoaren kulturako urtekaria argitaratzen du.

- **Hainbat sareren sorrera:** "Gastromuseums" Euskadiko Museo Enogastronomikoen Sarea eta "Ciderlands Makers & Lovers" Nazioarteko Sagardo Norakoen Sareak sortu eta sare horietako kide da.

- **Sagar eta sagardoan berezituriko Dokumentazio Zentroa:** Sagarraren, sagardoaren eta sagardoaren kulturaren gaineko albisteak, liburuak, dokumentuak, argazkiak, bideoak eta tresneria biltzen dituen Dokumentazio Zentroa dauka, sagardoaren kulturako ondarea bildu, antolatu eta gizarteratzeko helburua duena.

## Urteurrena ospatzeko jarduerak

2021eko irailaren 14an Sagardoetxeak 15 urte beteko ditu eta bere **15. urteurrena ospatzeko egitarau berezia** antolatuko du irailean, urrian eta azaroan. Sagardoaren kulturako ondarea balioan jartzeko, **Gordailuko** (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Bildumen Zentroa) **pieza etnografiko garrantzitsu bat ikusgai** jarriko du. Urteurrena ospatzeko antolatuko den jardueretako bat, museoko sagastian ospatuko den eta herriko kultur talde ezberdinen parte-hartzea izango duen **"Udazken giroan"** ekitaldia izango da, musika, dantza eta tailerrak uztarturko dituen.

Sagardoaren kulturarekin erlazionatutako ondareari egindako ekarpenek ere beren lekua izango dute 15. urteurrenaren ospakizunean eta Sagardoetxeak urteetan aberastu duen **Sagar eta Sagardoaren Dokumentazio Zentroa aurkeztu** eta bertan katalogatutako zenbait funts ikusgai jarriko ditu **erakusketa** batean. Sagardun Partzuergoa sortuz geroztik, sagarrarekin nahiz sagardoarekin erlazionatutako informazioa bildu, inbentariatu, digitalizatu eta katalogatu da eta lan horren emaitza, sagardoaren kulturako ondarea bildu, antolatu eta gizarteratzeko helburua duen sagarretan eta sagardoan berezituriko dokumentazio zentroa da. Mota guztietako funtsak biltzen dira bertan (liburuak, aldizkariak, eskuorriak, kartelak, dosierak, hemerrotekako albisteak, dokumentu historikoak, bideoak, argazkiak, etab.) eta gaur egun funtsen kopuru zabala dago bertan katalogatua: hemerrotekako 11.400 albiste, 175 liburu, 2.500 dokumentu, 350 bideo eta 40.700 argazki baino gehiago. Informazio hau online kontsultatu ahal izateko datu basea ere garatu du, [www.sagardoarenlurraldea.eus](http://www.sagardoarenlurraldea.eus) webgunean kontsultagai dagoena.

Honetaz gain, Sagardoetxeak munduko hainbat **herrialdeetako sagardoaren historia ezagutzara emateko diseinatu dituen nazioarteko panelak** aurkeztuko ditu. Informazio panel hauetan, Asturias, Euskal Herria, Estatu Batuak, Britainia eta Ingalaterra bezalako herrialdeetan sagardogintzak izan duen bilakaera historikoa aurkeztuko da, tokian tokiko hizkuntzak erabiltuta: euskara, gaztelania, asturiera, bretoiera, frantsesa eta ingelesa, besteak beste.

Sagardoetxeak, iraganaren eta etorkizunaren arteko lokarri izateko funtzioa gogoan dauka bere ateari ireki zituenetik eta 15. urteurrenaren ospakizunean herritar guztiak sagardoaren kulturaz gozatzera animatzen gaitu, orain arte egindako bidea eta etortzeko dagoena denon artean ospatzeko asmoz.

Gora sagardoaren kultura!

**SAGARDOAREN LURRALDEA**